

Erabilera (balioa) etxebizitzaren problematikan

Arkitekturaren kritika Lefebvre-ren berrikuste batetik

Laburpena

Konfinamenduan ageri diren gure etxeen eta gure beharren arteko gatazkak etxebizitzaren erabilera-balioaren eta truke-balioaren arteko gatazka historikoen adierazgarriak dira. Henri Lefebvre-ren lanak erakusten du arkitektura eta espazioaren rola ez direla batere inozoak izan, «taktika eta estrategia partikularren zerbitzura daude» eta.

Gako-hitzak: teoria sozial kritikoa, espazioaren filosofia, kontraesanak.

Abstract

The conflicts between our needs and our homes evidenced during the lockdown, reflect historical conflicts between use-value and exchange-value. The work of Henri Lefebvre shows that the role of architecture and space has been far from innocent, as they are «at the service of particular tactics and strategies».

Keywords: critical social theory, philosophy of space, contradictions



Ion Etxabe Gutierrez

Ikertzaile eta aholkulari sozio-espaziala AlterURBANA-n

Bidaltze data: 2020-11-30

Onartze data: 2020-12-17

Sarrera

Covid-19aren pandemiagatik bizi izandako etxeko konfinamenduak etxebizitzaren ezaugarrien eta etxebizitzarako beharren arteko gatazkak agerian jarri ditu; bai berriak, bai lehendik zeudenak ere. Argia, aireztapena, azalera, intimitatea, isolamendu termiko-akustikoa edo kanpoko espazioa izatea, zaintzak eta hezkuntza lan produktiboarekin bateragarri egitea, ez dira eskakizun berriak. Baina bada berria horiek oso denbora gutxian biztanleriaren zati handi batera indar eta aldibereotasun-maila altu batekin hedatu izatea. Ondorio okerragoekin, gainera, baldintza fisiko kaskarreko etxebizitzetan edota gainbetetze-egoeretan bizi diren pertsonentzat. Teoria kritikoa gatazkak (etxebizitzan eta eremu sozio-espazial guztietan) akats bakan, bigarren mailako ondorio edo salbuespen hutsak ez direla defendatzen du. Aldiz, kapitalismoaren barneko izaera kontraesankorrak (Harvey, 2014) horren garapen eta biziraupena gatazken menpe jartzen ditu; garapen ezberdina egiturazkoa da eta (Smith, 2010: 4). Beraz, etxebizitzaren problematika ez da hainbat arazo apartekoren batura (diseinu desegokia, elkarbizitzarako unitateen dibertsifikazioa, merkatuaren desfasea, etxebizitza publikoaren sistemaren gabeziak...), egiturazko kontu baten ondorioa baizik, eta adostutako estrategien parte diren ekintza zehatzen bidez zuzendu beharko da ikuspegi integralagoetatik.


Etxebizitza-gatazkei dagokienez, jarauntsitako egiturazko gatazka ezberdin eta historikoen adierazgarri zehatzak direla proposatzen da. Konplexu, kontraesankor eta baztertzaila den gizartearen antolakuntza-sistema batenak,

alegia. Kontzeptu marxistetan, etxebizitzaren erabilera-balioa —edukia funtsezko eskubidetzat hartzen duena— baztertzen duen truke-balioaren aldeko desoreka dela esan daiteke —edukitzaila objektu ekonomiko gisa erabiliz—. Beste batzuek bezala, Lefebvre-k arkitekturak gatazka horien garapen eta erreproduzio historikoan izandako rola ez dela neutroa ez eta inozoa izan defendatzen du, «taktika eta estrategia partikularren zerbitzura» dagoelako (Lefebvre, 2013: 393).

Haren lanaren bi ezaugarri dira interesekoak hemen. Lehenik, espazioa gauzak gertatzen diren euskarri neutro baten ikuskeratik ihes egiteko deia. Izan ere, espazioa euskarri ez ezik, ekoizpen-baliabide eta tresna ere bada; produktu bezala, espazioaren produkzio-prozesu berean hartzen du parte (Lefebvre, 2013: 56). Gizarte-harremanak adierazi ez ezik, aldi berean horietan eragina izaten duen produktu sozial bat ere bada (Lefebvre, 1976: 21). Bigarrenik, egunerokotasunean dauden kontraesan handiak (Martínez Gutiérrez, 2013: 41) eta gizakiaren izaera dialektiko eta kontraesankorra aztertzeke zuen interesa (Lefebvre, 1976: 78): «Espazioaren logiken azterketa batek espazioaren kontraesanak aztertzea eramaten gaitu [...] analisi hori gabe konponbideak ekar ditzake, baina bakarrik maskaratutako estrategiak izango dira, zientzia-itxura batez estaliak» (Lefebvre, 1976: 176).

Espazioaren eta edukiaren arteko unitate kontraesankorrak

Etxebizitzaren analisi zatikatua gainditzearen —espazioa, edukitzaila, alde batetik, eta etxe-bizitza, edukia, bestetik—



2. irudia - Arkitektura-esparruaren tentsio triailektikoa.
Egilea - Ion Etxabe.

Hautemandako espazioa

EArkitekturaren jatorriak hautemandako espazioarekin lotura handia omen du; irudikapenik, abstrakzioerik eta planifikaziorik ez zuen produkzioarekin. Espazioa kapitalismoarentzat zentrala bihurtu zen momentutik, bere produkzioa lehenetsi eta azkartu du, kapital-pilaketa iturri aparta dela eta (Martínez Lorea, 2013: 18). Hiri-espazioa teknika eta mozkinen bilaketaren menpe geratzen da, soziala bigarren plano batera alboratuz (Martínez Lorea, 2013: 34); gainbalioaren logika hirian kokatzen da eta horrek funtsezko tresna gisa hartzen du (Lefebvre, 1976: 42); etxebizitza, hirigintza eta higiezinaren sistemaren sostengu bezala, kapital-pilaketaren sektore nagusienetako bat bihurtzen da (Martínez Lorea, 2013: 18).

Esparru horretan, arkitekturak espazioan esku hartzen du kate-maila eta tresna garrantzitsu gisa, eta modu horretan, praktika espazial arkitektonikoak biztanleak, erabiltzaileak eta irudikatzen ez den bizitako espazio konkretua baztertzen ditu (Lefebvre, 2013: 393-395). Lefebvre-k bere garaian nagusitu ziren hirigintza eta arkitektura-praktiken inguruan eginiko kritika —Gropius edo Le Corbusier barne (Lefebvre, 2013: 58, 340, 341) — egungoetara heda daiteke: «Arkitektoak diru-sarreraren (soldatak eta lansariak), arauen eta balioen murrizketen arabera eraikitzen du; hau da, bereizketa dakarten klase-irizpideen arabera, nahiz eta integratzeko borondatea dagoela ematen duen. Oro har, merkantzia-munduan harrapatuta ikusten du bere burua mundu osoa dela ohartu ere egin gabe. Inkontzienteki, bere borondate onenarekin, arkitektoak erabilera trukearen menpe jartzen du, eta erabilera-balioa truke-balioaren menpe» (Lefebvre, 1976: 97). Arkitekturak dauzkan potentziala eta eragin positiboa zalantzan jarri gabe, Lefebvre-ren pentsamenduak bi akats salatzen aukera ematen du. Lehenik, espazio arkitektonikoa —etxebizitza— arkitekturari eskusiboki zor zaiola pentsatzea, horrek «soziala eta praktika soziala parentesi artean jartzen [bait] ditu lanak entitate isolatutzat soilik jartzeko» (Lefebvre, 2013:

340). Bigarrenik, arkitekturak, Gropius-ek uste zuen bezala, bizitzaren kontzeptio berria definitzen duela pentsatzea; aitzitik, diziplina honen ekarpena bere gaitasun osorako gara daiteke bizitzaren kontzeptio berri baten esparruan (Lefebvre, 1976: 105).

Bizitako espazioa

Bizitako espaziora mugituz, utopia arakutzen ez bada posible denera lurreratzeko —egungo etxebizitza-parkean esku hartzeko eta eraldatzeko aukerak libreki aztertuz—, eta biztanleengan eta erabiltzaileengan arreta jartzen ez bada bizi-izatea eta erabilera jomuga izateko, arkitekturak ia ez du ekarpenik egingo arazo hau konpontzeko (Lefebvre, 1976: 187). Berez entzutea da falta dena, pertsona horiek ez baitira guztiz ahazten. Aitzitik, etxe berriak ekoiztearen eta lur berriak urbanizatzearen aldeko diskurtsoak elikatzen dituzten funtzioa betetzen dute —nahiz eta gero ez duten haietara sarbiderik lortzen, etxebizitzek ez dieten beren behar espazialei erantzuten, eta ez duten sortutako kapital-irabazietan parte hartzen—. Baina parte-hartze maltzurra da: etxebizitza duin baten beharra duen pertsona «gogora ekartzen da, heldu egiten zaio, baina ia inoiz ez da deitzen» (Lefebvre, 1976: 193).

Arkitektura erabiltzaileen espazioa errealtate bihurtzeko lankidetzan aritu deneko adibideak ez dira berriak, ezta gutxi ere. Biztanle eta erabiltzaileen ahalduzetik abiatuta garatutako esperientzia kolektiboak badaude, kanpoko laguntza izandakoak —teknikoa, publikoa, aldeko arau-esparrua...—, behar zehatzetarako diseinatutako eta arazoizko prezioan eraikitako etxeak lortu dituztenak. Kooperatibek, okupazio-mugimenduek edo hiri-soberismoaren eta erabilera-transferentziaren praktikek «beren momentuak eta beren ekintzak, beren espazioa eta denbora, beren lanak asmatzen ditu [jendea taldekatzen dute]. Zalantzarik gabe, bizi-izatearen mailara edo horretatik abiatzen direnak [...] Zenbait saiakera egin dira zentzu horretan, gauzen sistema edo sistema bera zuzaltzeko eta

ezinezkoa posible bihurtzeko» (Lefebvre, 1976: 104, 105). Baina galdera ez da gehiegi merkantilizatu eta truke-balioarekiko desorekatu den eredu batean praktika horiek bideragarriak eta erreproduzigarriak ote diren —badira, zailtasunak dituzten arren—. Galdera nagusia da horiek beraiek nola zabaldu eta normalizatu, nola egin irudikapenen espazio horietan eta haien protagonistetan arreta nagusia jartzeko eta kalitatezko erabilera (balio) sendo bat lortzeko.

Konklusioak

Aurreko guztiak ez du esan nahi alternatibarik ez dagoenik, baizik eta sistemaren oreka ezegonkorra alde berean dagoela denbora guztian, nahiz eta koiunturako aldaera historiko txikiak izan. Badirudi, beraz, arkitekturaren funtzio soziala ez dagoela agendaren goialdean. Edo, egotekotan, ez da emaitzarik lortzen. Bertan berriro kokatzeko, beharrezkoa izan daiteke arkitekturari buruz gutxiago hitz egitea eta ekonomia politikoaz gehiago mintzatzea. Etxebizitza-funtzioa kontzeptu partzial eta teknikoa da, batez ere euskarri fisikoari lotuta dagoena, eta azken hori erabili edo ez funtzioa betetzen da. Erabilera eta erabilera-balioa izango dira ekuazioan edukia, benetako jendea eta dimentsio soziala txertatzen dituztenak. Horiek behin erdigunean jarrita, kalitatezko espazioa duten eta ekonomikoki eskuragarriak diren etxebizitzak beharra duen jendearen esku egoteko berme gehiago izango dira.

Orain arte garatutakoak aukera ematen du arkitekturak eredu honen eraldaketaren alde egiteko zenbait bide posible adierazteko. Tentsio dialektiko eta kontraesankorren esparruan, haien unitate gatazkatsua bere gain hartzetik haratago, normalean desabantailan den aldearekiko harreman horien muturrak orekatzeko (edo desorekatzeko) ahalegina egin beharko litzateke: erabilera-balioaren aldearekiko, alegia. Lefebvre-k proposatutako teoria unitarioaren tentsio trialektikoaren esparruan, irudikapenen espazioak —biztanle eta erabiltzaileenak— erdigunean jartzeko ahalegina egin beharko da. Horiek helburutzat hartuz arkitekturaren funtzio sozialaren garapen arrakastatsua lor dadin, Lefebvre-ren arabera espazioaren irudikapenen eta praktiken gainean jarduteko ahalmen eraldatzailea baitute (Martínez Lorea, 2013: 16). Espazioaren produkzioa —azken emaitza, praktika— eta irudikapena —produkzio hori espazioaren abstrakzioetik egitea ahalbidetzen duten tresnak— imajinatzen eta nahi den espazioaren zerbitzura jarri behar dira lanean. Zailtasuna une bakoitzean espazio horietako bakoitzari behar duen rola eta garrantzia ematean datza, haien artean etengabeko elkarriketak mantenduz. Gizarte bezala kalitatezko erabilera ahalbidetzen duen etxebizitza-espazio bat lortzen arrakasta izateko, etxeko bizitza duina eta egokia sustatzen duena, zeregin kolektibo zail baten menpe gaude: hiru espazio horietan zehar eta haiek berezko dituzten kontraesanen arteko oreka aldakorra, baina beti bidezkoa, mantentzea.

///

Bibliografia

- Harvey, D. (2014): *Diecisiete contradicciones y el fin del capitalismo*, Traficantes de Sueños, Madril.
- Lefebvre, H. (1976): *La revolución urbana*, Alianza Editorial, Madril.
- Lefebvre, H. (2013): *La producción del espacio*, Capitán Swing, Madril.
- Martínez Gutiérrez, E. (2013): «Ciudad, espacio y cotidianidad en el pensamiento de Henri Lefebvre», in H. Lefebvre, *La producción del espacio*, Capitán Swing, Madril, 31-50.
- Martínez Lorea, I. (2013): «Henri Lefebvre y los espacios de lo posible», H. Lefebvre, *La producción del espacio*, Capitán Swing, Madril, 9-28.
- Smith, N. (2010): *Uneven Development: Nature, Capital, and the Production of Space*, Verso, Londres-New York.